

Zubietako etxaldea, nekazal ustiapenaren esperimentazio gunea



Zubieta etxaldea Gipuzkoako Foru Aldundiarena da eta, bertan, lau pertsonak egiten dute lan. Hamabost hektareako eremu honetan ia denetarik landatu, hazi eta ikertzen da; Tolosako babarrunak, fruitu exotikoak, bi mila sagarrondo mota baino gehiago...Apiril amaieran, Euskadiko Nekazaritza Ustialekuen II. Txapelketako emaitzak eman ziren bertan, baita baserritar asko elkartu zituen bazka-belarren erabilerarako makinaria erakusketa egin ere.

Gure eskualdean kirol instalakuntzak behar dira eta Gipuzkoako Foru Aldundiak beste eremu batean kokatu beharko du esperimentazio eta ikerketa gune hau. Lanak hasi bitartean, ordea, inguruko baserritar eta nekazariak bertara jotzen dute sektoreko azken aurrerapenen berri jaso eta aholku bila.

Gaur egun, Zubietako etxaldean burutzen den jarduerarik

garrantzitsuena sagarrondo landareen ingurukoa da. Zubieta, sagardo produktiorako sagarrondo landare banaketa gunea da. Ez da bakarra, Aia eta Donostiako Ibarrola eta Zabalegi etxaldeetan ere antzeko jarduera burutzen baitu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Zubietan, sagarrondo-plantazio esperimental ugari aurkitzen da. Bertan, sagarrondo autoktonoen produkzio eta loraketa datuak jasotzen

Baserrietan ere teknologia berriak

Teknologia berriek eta hauen ezarpenak landa inguruneke lan eta bizi baldintzak hobetzeko aukera asko eskaintzen dituzte. Hau dela eta, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza saileko Landa Garapenerako Zuzendaritzak Mendinet izeneko ciberbusa jarri du martxan. Teknologia berrien gela ibiltari hau, komunikazio teknologia aurreratuarekin hornitutako autobusa da: punta-puntako bost ordenagailu ditu baita telebigilantzi eta bideokonferentzi sistemak eta teknologia berrientzako hastapen modulo pedagogikoak ere... Helburua, teknologia berriek dakartzaten onura ezberdinak baserritarrei "in situ" erakustea da. Abeltzaintza ustiapenen telebigilantzi praktikoak egin daitezke (ikuiluen ikuskapenak, jaiotzen jarraipenak...). Multikonferentziko teleformakuntza ere oso interesgarria izan daiteke baserritik mugitu gabe ikastaroak egin nahi dituzten baserritarrentzat.


Mendinet autobusak bere zerbitzua eskatzen duen edozein ekoizle, entitate edo udaletxe bisitatzen du. Azaroan martxan jarri zenetik, egutegi guztia beteta dauka datorren iraila bitarte. "Baserritarrek interesgarritzat jotzen dituzte teknologia berriak eta arretaz jarraitu eskaintzen zaizkien aste beteko ikastaroak," azaltzen du Xabier Eskizabel monitorea.



Mendinet ciberbusak puntako bost ordenagailu ditu eta monitore batek ikastaro ezberdinak eskaintzen ditu.



Jon Mikel Murua nekazaritza diputatua Zubietako etxaldean izan zen sari banaketarako.



LOCALIA
TXINGUDI